Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko abenduaren 22a, asteazkena — 243 — Miércoles, a 22 de diciembre de 2021

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

688/2021 Foru Agindua, abenduaren 20koa, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenta jakin batzuen atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aitortzeko 296 eredua eta haren aurkezpen moduak eta epeak onartzen dituena.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, 296 ereduaren aurkezpena arautzen du abenduaren 23ko 1055/2009 Foru Aginduak, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan establezimendu iraunkorrik gabe lortutako hainbat errentaren gainean egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aitortzeko 296 eredua onartu, 210, 211, 212, 213, 215 eta 216 ereduen formularioaren bidezko aurkezpen telematikoa gaitu eta 214 ereduari buruzko xedapenak indargabetzen dituenak. Foru agindu hori abenduaren 23ko 678/2014 Foru Aginduaren bidez aldatu zen (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2014/01/31).

Hasierako onarpenetik denbora luzea igaro denez eta eredu horretan jasotako informazioa aurkezteko betebeharrari buruzko araudian aldaketak egin direnez, gomendagarria da abenduaren 23ko 1055/2009 Foru Aginduaren edukiaren eguneratze orokorra egitea, 296 ereduari dagokionez.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 296 eredua onartzea.

Bat. Onartu egiten da da 296 eredua, izenburu hau duena: «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena».

Bi. Onartu egiten dira bitarteko elektronikoez aurkeztutako 296 ereduko aitorpenen diseinu logikoak. Diseinuak foru agindu honen II. eranskinean jasoten dira.

2. artikulua. 296 eredua aurkeztera behartuak.

Bat. Maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 15. artikuluan aipatutakoaren arabera atxikitzera edo kontura sartzera behartutako subjektuek aurkeztu behar dute 296 ereduaren urteko laburpena. Salbuetsita geratzen dira inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik atxiki edo konturako sarrerak egin behar dituztenak, horiek berariazko urteko laburpena aurkeztu beharko baitute.

Bi. Maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak 19.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, 296 ereduaren urteko laburpena aurkeztuko dute, halaber, Espainian helbideratuta dauden, bertan egoitza duten edo han ordezkatuta dauden entitateek, baldin eta atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta dauden errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo baloreen errentak gordailatzeaz edo kobratzeaz arduratzen badira.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 688/2021, de 20 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 296 para la declaración del resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta sobre determinadas rentas obtenidas sin establecimiento permanente en el impuesto sobre la renta de no residentes, y sus formas y plazos de presentación.

La Orden Foral 1055/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 296 para la declaración del resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta sobre determinadas rentas obtenidas sin establecimiento permanente en el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, se habilita la presentación telemática vía formulario de los modelos 210, 211, 212, 213, 215 y 216 y se derogan las disposiciones reguladoras del modelo 214, regula desde el 1 de enero de 2010 la presentación del modelo 296, siendo modificada por la Orden Foral 678/2014, de 23 de diciembre (Boletín Oficial de Gipuzkoa 31/01/2014).

El tiempo transcurrido desde su inicial aprobación y las modificaciones efectuadas en la normativa que regula la obligación de presentación de la información contenida en dicho modelo, aconsejan efectuar una actualización general del contenido de la Orden Foral 1055/2009, de 23 de diciembre, en lo que al modelo 296 se refiere.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. Aprobación del modelo 296.

Uno. Se aprueba el modelo 296 «Impuesto sobre la Renta de no Residentes. Rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente. Retenciones e Ingresos a cuenta. Resumen anual», que se incluye como anexo I de la presente orden foral.

Dos. Se aprueban los diseños lógicos a los que deberán ajustarse las declaraciones presentadas por medios electrónicos del modelo 296, que se incluyen como anexo II de la presente orden foral.

Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 296.

Uno. Están obligadas a presentar el modelo 296 las personas o entidades obligadas a retener o a efectuar ingreso a cuenta a que se refiere el artículo 15 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, aprobado por el Decreto Foral 11/2016, de 17 de mayo, salvo las personas o entidades obligadas a retener o ingresar a cuenta en las transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones representativas del capital o del patrimonio de instituciones de inversión colectiva, que presentarán un resumen anual específico.

Dos. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 19.2 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, aprobado por el Decreto Foral 11/2016, de 17 de mayo, deberán también presentar el modelo 296 las entidades domiciliadas, residentes o representadas en España, que paguen por cuenta ajena rentas sujetas a retención o ingreso a cuenta o que sean depositarias o gestionen el cobro de las rentas de valores.

EK\CV GAO-I-2021-08154

3. artikulua. 296 ereduko jasotzaileen zerrendaren edukia.

Bat. Maiatzaren 17ko 11/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 19.2 artikuluan aipatutako jasotzaileen zerrenda izenduna prestatzeko, 296 ereduaren barruko orriak erabiliko dira paperezko euskarrian, edo, hala badagokio, foru agindu honen II. eranskinean adierazitako erregistroak.

Bi. Aitortzaileak atxikitzera edo kontura sartzera derrigortuta badaude, zerrenda horren barnean hartuko dira haiek ordaindutako zergapeko errentak jasotzen dituztenen datuak, bai atxikipenak edo konturako sarrerak egin zaizkien errentei dagokienez edo bai atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar ez zaien baina atxikipenen aitorpen negatiboa aurkezteko betebeharra dagoen errentei dagokienez. Ez dira atxikipenen urteko laburpenean sartu beharko atxikipenen aitorpen negatiboa aurkezteko betebeharretik salbuetsitako errenten jasotzaileak, hain zuzen ere 216 eredua, besteak beste, onartzen duen urtarrilaren 23ko 21/2001 Foru Aginduko 2. artikuluaren hiru apartatuan zerrendatuta daudenak.

Hiru. Era berean, Espainian helbideratuta dauden, bertan egoitza duten edo ordezkatuta dauden entitateek atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta dauden errentak besteren kontura ordaintzen dituztenean edo baloreen errentak gordailatu edo kobratzeaz arduratzen direnean, errenta horiek jaso dituztenen datuak adierazi beharko dituzte zerrenda horretan, betiere haientzat besteren konturako ordaintzaile gisa jardun badute edo errenta horiek gordailatu edo kobratzeaz arduratu badira.

4. artikulua. 296 eredua aurkezteko moduak.

Bat. 296 eredua aurkezteko, jarraian aipatzen diren bi modu hauetako bat erabili ahal izango da:

a) Fitxategi informatikoaren transmisio telematikoa, foru agindu honetako II. eranskinean jasota dauden diseinu logikoen arabera.

Aurkezteko modu hau erabili beharko dute Gipuzkoako lurralde historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duen ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduko 1. artikuluaren 1. apartatuan sartutako zergapekoek.

Honela egin ahal izango da transmisio telematikoa:

a') Internet, Zergabidea plataformatik, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduan jasotakoaren arabera.

Aurkeztu beharreko eredua Zergabidea plataformak berak eskatutako datuak betez prestatu ahal izango da. Bestela, foru agindu honen II. eranskinean jasotako formatu, ezaugarri eta zehaztapen berberak dituzten fitxategi elektronikoak lortu ahal izateko beste programa batzuen bidez prestatu ahal izango da eredua, eta fitxategi horiek Zergabidean aurkeztu beharko dira plataforma horretan deskargatu ondoren.

Zergabidea plataforma https://zergabidea.gipuzkoa.eus atarian dago eskuragarri. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik ere sartu ahal izango da edo, bestela, Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik.

b') Editran sistema erabiliz, abenduaren 5eko 1210/2002 Foru Aginduak, Zenbait zerga eredu Editran sistema telematikoaren bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituenak, jasotakoaren arabera.

b) Paperezko euskarria, foru agindu honen I. eranskin gisa jasotako diseinuarekin bat etorriko dena. Honela osatuta dago aipatu euskarria:

a') Laburpen orria, bi ale dituena: Administrazioaren alea eta interesatuaren alea.

Artículo 3. Contenido de la relación de perceptores del modelo 296.

Uno. La relación nominativa de personas o entidades perceptoras a que se refiere el artículo 19.2 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, aprobado por el Decreto Foral 11/2016, de 17 de mayo, se efectuará utilizando las hojas interiores del modelo 296 en soporte papel o, en su caso, los registros correspondientes previstos en el anexo II de la presente Orden Foral.

Dos. Tratándose de personas o entidades declarantes que sean obligadas a retener o ingresar a cuenta, dicha relación contendrá los datos de las personas o entidades perceptoras de rentas sujetas al impuesto, satisfechas o abonadas por ellas, respecto de las que han efectuado retenciones o ingresos a cuenta o respecto de aquellas sobre las que no procede practicar retención o ingreso a cuenta pero si existe obligación de presentar declaración negativa de retenciones. No se incluirá en el resumen anual de retenciones a las personas o entidades perceptoras de rentas excluidas de la obligación de presentar declaración negativa de retenciones, relacionadas en el apartado tres del artículo 2 de la Orden Foral 21/2001, de 23 de enero, por el que se aprueba, entre otros, el modelo 216.

Tres. Asimismo, las entidades domiciliadas residentes o representadas en España, que paguen por cuenta ajena rentas sujetas a retención o ingreso a cuenta o que sean depositarias de valores o gestionen el cobro de las rentas de valores, harán constar en la relación de personas o entidades perceptoras los datos correspondientes a aquellas respecto de las que han actuado como pagadoras por cuenta ajena o como depositarias o gestoras en el cobro de las citadas rentas.

Artículo 4. Formas de presentación del modelo 296.

Uno. El modelo 296 se presentará con arreglo a alguna de las formas de presentación que a continuación se relacionan:

a) Transmisión telemática del fichero informático que se deberá ajustar a los diseños lógicos previstos en el anexo II de la presente orden foral.

Deberán utilizar esta forma de presentación los obligados tributarios incluidos en el apartado 1 del artículo 1 de la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

La transmisión telemática se podrá efectuar a través de:

a') Internet, desde la plataforma Zergabidea, con arreglo a lo previsto en la citada Orden Foral 320/2017, de 28 de junio.

El modelo a presentar se podrá confeccionar, bien cumplimentando los datos requeridos al efecto por la propia plataforma Zergabidea, bien mediante otros programas que permitan obtener ficheros electrónicos con los mismos formatos, características y especificaciones que los previstos en el anexo II de esta orden foral, los cuales se presentarán a través de Zergabidea tras su descarga en dicha plataforma.

La plataforma Zergabidea se encontrará disponible en el portal https://zergabidea.gipuzkoa.eus. Se podrá acceder, asimismo, desde la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa o desde la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas.

b') Editran, de conformidad con lo previsto en la Orden Foral 1210/2002, de 5 de diciembre, por la que se establecen las condiciones generales y el procedimiento para la presentación telemática por Editran de determinados modelos tributarios.

b) Soporte papel, que se deberá ajustar al diseño que figura como anexo I de la presente orden foral. El citado soporte se compone de:

a') Hoja resumen, que comprende dos ejemplares: ejemplar para la Administración y ejemplar para la persona o entidad interesada.

EK\CV GAO-I-2021-08154

b') Jasotzaileak zerrendatzeko orria; horietako bakoitzak beste bi ale ditu: Administrazioaren alea eta interesatuaren alea.

Paperezko euskarria erabiliz gero, 296 eredua, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zerga-bilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetako batean aurkeztu daiteke (bankuak, aurrezki kutxak edo kreditu kooperatibak), edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretako bulegoetan.

Bi. 296 ereduek informazioa jasotzen badute hainbat zerga neurriri buruzko apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauak bigarren xedapen gehigarrian araututako baloreen maileguei dagokienez, bide telematikoz aurkeztu beharko dira derrigorrez, dela Internet bidez dela Editran sistema erabilita.

Hiru. Internet bidez aurkeztutako aitorpenak aldatu, zuzendu edo baliogabetu nahi badira foru agindu honen 4. artikuluan aipatzen den epea amaitu aurretik, internet bidez egin beharko da beti.

Lau. 296 eredua banaka zein taldeka aurkeztu ahal izango da transmisio telematikoz. Lehen kasuan, datuak biltzen dituen fitxategiak atxikitzaile baten edo kontura sartzera behartutako baten datuak jasoko ditu soilik, eta bigarrenean, baten baino gehiagorenak.

5. artikulua. 296 eredua aurkezteko epea eta tokia.

Bat. 296 eredua urte bakoitzeko urtarrilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu behar da, dela paperean, dela transmisio telematikoz, eta aurreko urteari dagokion informazioa jaso beharko du.

6. artikulua. Dokumentazioa.

Bat. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorrak, 65. artikuluan aipatzen duen preskripzio epeak dirauen bitartean, 296 ereduaren urteko laburpena aurkeztera behartuta daudenek Zerga Administrazioaren esku eduki beharko dituzte egindako atxikipenen edo konturako sarreren frogagiriak.

Bi. Ondorio horietarako, barne araudian jasotako salbuespenen aplikazioagatik atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez denean zergadunaren egoitza kontuan hartu delako, egoera hori zergaduna bizi den herrialdeko agintari fiskalek emandako egoitza agiriarekin frogatu beharko da.

Hiru. Bere aldetik, atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez denean ezarpen bikoitza saihesteko Espainiak izenpetu duen hitzarmenean jasotako salbuespenak aplikatu direlako edo, bestela, atxikipena edo konturako sarrerak hitzarmen horretan finkatutako mugekin aplikatu direnean, egoera hori agiri hauetako bat aurkeztuz frogatuko da:

a) Egoitza ziurtagiria, zerga alorreko agintariak luzatua. Bertan espresuki adierazi beharko da errenta jasotzen duen zergaduna hitzarmenean zehaztutako zentzuan dela egoiliarra.

b) Murriztapen edo salbuespenari buruzko formularioa, baldin eta aplikagarri den hitzarmenak garapen agindu bat badu.

Aurreko paragrafoetan aipatu diren egoitza ziurtagiriek urtebeteko balioa izango dute ematen diren egunetik aurrera.

Lau. Atxikipen edo konturako sarrerarik ez bada egin zerga ordaindu egin delako, hori frogatzeko modua zergadunak edo bere ordezkariak zerga Hori dela eta aurkeztu duen aitorpena izango da.

Bost. Aurreko apartatuetan jasotakoak ez du baztertuko ondorengo 6. eta 7. artikuluetan jasotakoa.

b') Hoja de relación de perceptores, cada una de las cuales consta, asimismo, de dos ejemplares: ejemplar para la Administración y ejemplar para la persona o entidad interesada.

El modelo 296 en soportes papel podrá presentarse en alguna de las entidades autorizadas para actuar como colaboradoras en la recaudación de los tributos (Bancos, Cajas de Ahorro o Cooperativas de Crédito), en los términos previstos en el Reglamento de Recaudación, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, y en las oficinas de atención ciudadana del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Dos. Será obligatoria la presentación por vía telemática, sea Internet o Editran, de aquellos modelos 296 que contengan información relativa a los préstamos de valores regulados en la disposición adicional segunda de la Norma Foral 2/2004, de 6 de abril, por la que se aprueban determinadas medidas tributarias.

Tres. La modificación, rectificación o anulación de las declaraciones presentadas por Internet que se efectúe antes de la finalización del plazo a que se refiere el artículo 4 de esta orden foral, sólo se podrá efectuar por la misma vía.

Cuatro. La presentación del modelo 296 mediante transmisión telemática podrá realizarse de forma individual o de forma colectiva, según que el fichero correspondiente contenga los datos de un solo retenedor u obligado a ingresar a cuenta, en el primer caso, o de varios en el segundo.

Artículo 5. Plazo presentación del modelo 296.

La presentación del modelo 296, tanto en soporte papel como mediante transmisión telemática, deberá realizarse en los treinta primeros días naturales del mes de enero de cada año, en relación con la información referida al año inmediato anterior.

Artículo 6. Documentación.

Uno. Las personas o entidades obligadas a presentar el modelo 296 deberán conservar a disposición de la Administración tributaria, durante el período de prescripción a que se refiere el artículo 65 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria, la documentación que justifique las retenciones o los ingresos a cuenta efectuados.

Dos. Cuando no se haya practicado retención o ingreso a cuenta por aplicación de las exenciones previstas en la normativa interna, por razón de la residencia del o de la contribuyente, ello deberá justificarse con un certificado de residencia expedido por las autoridades fiscales del país de residencia del o de la contribuyente.

Tres. Cuando no se haya practicado retención o ingreso a cuenta por aplicación de las exenciones previstas en un Convenio para evitar la doble imposición suscrito por España o cuando se hayan practicado con los límites de imposición fijados en el mismo, ello deberá justificarse mediante alguno de los siguientes documentos:

a) Mediante un certificado de residencia, expedido por la autoridad fiscal correspondiente, en el que deberá constar expresamente que la o el contribuyente perceptora o perceptor de la renta es residente en el sentido definido en el Convenio de que se trate.

b) Mediante el pertinente formulario de reducción o exención, cuando resulte aplicable un Convenio respecto del que exista una Orden de desarrollo.

Los certificados de residencia a que se refieren los párrafos anteriores, tendrán un plazo de validez de un año a partir de la fecha de su expedición.

Cuatro. Cuando no se haya practicado retención o ingreso a cuenta por haberse efectuado el pago del Impuesto, ello se acreditará mediante la declaración del impuesto correspondiente a dicha renta presentada por el o la contribuyente o su representante.

Cinco. Lo previsto en los apartados anteriores se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 6 y 7 siguientes.

EK\CV GAO-I-2021-08154

7. artikulua. Jabetza intelektualeko eskubideak kolektiboki kudeatzeko baimenduta dauden entitateek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Bat. Jabetza intelektualaren eskubideen Kudeaketa kolektiboa egiteko baimenduta dauden Espainiako entitate egoiliarrek ondoko agirien bidez justifikatu ahal izango dute, elkarrekiko edo alde bateko ordezkaritza kontratuak sinatuak dituzten beste herrialde batzuetan egoiliarrak diren eta antzeko izaerako eskubideen Kudeaketa kolektiboko beste entitate batzuei likidatzen dizkieten eskubide kudeatuen ordainketei dagokienez, likidazio haietan jasotako etekinei atzerriko entitatearen egoitza herrialdearekin ezarpen bikoitza saihesteko sinatutako hitzarmenean jasota dagoen ezarpen muga edo salbuespena aplikatuz egin zaien atxikipena:

a) Kudeaketa kolektiboko atzerriko entitateak egindako ziurtagiria, non jasota egon utzi behar baitira hitzarmenaren zentzuan atzerriko entitatearen egoitza herrialde berean egoiliar diren jasotzaileen zerrenda, horietako bakoitzaren eskubideen zenbateko osoa eta zenbateko horien batura.

b) Atzerriko entitatearen egoitza fiskaleko ziurtagiria, haren herrialdeko agintari fiskalek egina. Urtebeterako balio izango du ziurtagiriak, egiten denetik aurrera.

Bi. Artikulu honen aurreko apartatuan jasotakoak ez du eragotziko zerga sortzen denean indarrean dauden ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmenen garapenerako aginduetan xedatutakoa, zeinetan murrizte prozeduran ezarrita baitago berariazko formulario bat erabiltzea edo egoitza fiskaleko ziurtagiri bat aurkeztea.

Espainian egoiliarra den entitatearen jabetza intelektualeko eskubideen Kudeaketa kolektiboko entitatea behartuta dago dokumentazio hori gordetzera, betiere Zerga Administrazioaren eskura izanda, 2005eko martxoaren 8ko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 65. artikuluan aipatutako preskripzio epean.

Hiru. 296 ereduko atxikipenen urteko aitorpena betetzeko bakarrik, Espainian egoiliarra den eskubideen Kudeaketa kolektiboko entitateak eta, lehenago aipatutako zerrendan sartutako kolektiboari dagokionez, zerrendan sartutako bakoitzari buruzko xehetasuna jaso beharrean, jasotzaile atal edo erregistro bakar batean taldekatu behar dira, Kudeaketa kolektiboko atzerriko entitatea jasotzaile gisa adierazita.

Lau. Artikulu honetan araututako akreditazio prozedura bereziak ez du eragotziko Zerga Administrazioak Kudeaketa kolektiboko entitateek egindako ordainketa horietan sartutako etekinak jasotzen dituen edozein onuraduni, hala badagokio, hitzarmena aplikatzeko eskubidea egoitza fiskaleko ziurtagiri baten bidez exijitzeko duen ahalmena. Aipatu ziurtagiria egoitza herrialdeko agintari fiskalek egina behar da izan, eta hitzarmenaren zentzuan egoitza dela jasota utzi behar da.

8. artikulua. Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak mugaz gaindi merkaturatzean aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen eta Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeek akzio edo partaidetzak, entitate merkaturatzaileen izenean irekitako kontu globalen bitartez, mugaz gaindi merkaturatzeko egiten diren kontratuen kasuan, egoitza akreditatzeko prozedura hau ezartzen da, inbertsio kolektiboko erakunde espainiarrek establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei banatutako mozkinen gaineko atxikipenak edo konturako sarrerak egite aldera:

Artículo 7. Documentación en el caso de entidades autorizadas para la gestión colectiva de derechos de la propiedad intelectual.

Uno. Las entidades residentes en España autorizadas para ejercer la gestión colectiva de derechos de la propiedad intelectual, en relación con los pagos de derechos gestionados que liquidan a otras entidades de gestión colectiva de derechos de naturaleza similar residentes en otros países, con los que hayan suscrito contratos de representación, recíproca o unilateral, podrán justificar la retención practicada aplicando el límite de imposición, o la exención, fijado en el Convenio para evitar la doble imposición suscrito con el país de residencia de la entidad extranjera, respecto de los rendimientos comprendidos en esas liquidaciones, mediante los siguientes documentos:

a) Certificado emitido por la entidad de gestión colectiva extranjera, referido a cada liquidación, que contenga la relación de personas o entidades perceptoras residentes, en el sentido del Convenio, del mismo país del que es residente la entidad extranjera, el importe íntegro de los derechos correspondientes a cada una de ellas y la suma de esos importes.

b) Certificado de residencia fiscal de la entidad extranjera expedido por las autoridades fiscales de su país. Este certificado tendrá una validez de un año a partir de su fecha de expedición.

Dos. Lo previsto en el apartado anterior de este artículo se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en las ordenes de desarrollo de los Convenios para evitar la doble imposición que estén vigentes en el momento del devengo, en las que se establezca, en el procedimiento de reducción, la utilización de un formulario específico o la aportación de un certificado de residencia fiscal.

La entidad de gestión colectiva de derechos de la propiedad intelectual residente en España estará obligada a conservar esta documentación, a disposición de la Administración tributaria, durante el plazo de prescripción a que se refiere el artículo 65 de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Tres. A los exclusivos efectos de la cumplimentación de la declaración anual de retenciones, modelo 296, por la entidad de gestión colectiva de derechos residente en España y, por lo que se refiere al colectivo integrado en la relación antes citada, en lugar de hacer constar el detalle por cada uno de los incluidos en la relación, se agruparán en un único apartado o registro de persona o entidad perceptora, consignando como tal a la entidad de gestión colectiva extranjera.

Cuatro. El procedimiento especial de acreditación regulado en este artículo, se entenderá sin perjuicio de la facultad de la Administración tributaria de exigir, en su caso, a cualquier persona o entidad beneficiaria que perciba rendimientos comprendidos en estos pagos efectuados por entidades de gestión colectiva, la justificación de su derecho a la aplicación del convenio mediante un certificado de residencia fiscal, expedido por las autoridades fiscales del país de residencia, donde conste que es residente en el sentido del Convenio.

Artículo 8. Documentación en el caso de comercialización transfronteriza de acciones o participaciones de instituciones de inversión colectiva españolas.

En los casos de contratos de comercialización transfronteriza de acciones o participaciones de instituciones de inversión colectiva españolas, mediante cuentas globales a nombre de las entidades comercializadoras, a que se refiere la disposición adicional primera del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, aprobado por el Decreto Foral 11/2016, de 17 de mayo,, se establece el siguiente procedimiento de acreditación de la residencia a efectos de la práctica de retenciones o ingresos a cuenta sobre los beneficios distribuidos por las instituciones de inversión colectiva españolas a contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes sin establecimiento permanente:

EK\CV GAO-I-2021-08154

a) Baldin eta atzerriko entitate merkaturatzaileak egoitza badu Espainiarekin informazio trukerako klausula duen zergape tze bikoitza saihesteko hitzarmen bat, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 25. artikuluan jasotakoa baino zergapetze maila txikiago bat finkatzen duena, sinatu duen herrialde batean, ziurtagiri bat egin eta sozietate kudeatzaileari edo inbertsio sozietateari eman behar dio, inbertsio kolektiboko erakunde bakoitzeko edo, hala badagokio, horren partaidetza banatze edo mota bakoitzeko edo akzio serie bakoitzeko, inbertsio kolektiboko erakundeak banatutako mozkinak jasotzen dituenean. Informazio hau jaso behar da ziurtagirian:

1. Ziurtagiria non eta noiz egin den.

2. Entitate merkaturatzailearen izendapena, eta haren egoitzako herrialdean duen helbide osoa. Era berean, Espainiako Zerga Administrazioak Espainiarekin zergapetze bikoitza saihesteko informazio trukerako klausula duen hitzarmen bat sinatu duen herrialde batean egoitza duen entitate merkaturatzaileari esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia sartu beharko da, salbu eta aurkeztu behar ez baditu uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuak onartutako Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatuaren c) letran xedatutakoaren arabera xedapen horretan aipatutako zerrenda indibidualizatuak.

3. Ziurtagiria sinatzen duen pertsonaren identifikazioa eta kargua; ahalorde nahikoa izan behar du pertsona horrek.

4. Inbertsio kolektiboko erakundearen izena, Zerga Administrazio espainiarrak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga helbidea.

5. Hala badagokio, partaidetzen banatzearen edo motaren izena edo akzioen seriearena.

6. Inbertsio kolektiboko erakundearen partaidetza edo akzioen ISIN kodea edo, hala badagokio, horien banatze edo motarena edo seriearena.

7. Hala badagokio, entitate kudeatzailearen izena, Espainiako Zerga Administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga helbidea.

8. Mozkinak noiz banatu diren.

9. Hitzarmenaren zentzuan egoiliar diren eta entitate merkaturatzailearen herrialde berekoak diren jasotzaileen kopurua, eta horiek jasotako mozkinen zenbateko osoa.

10. Gainerako jasotzaileen kopurua, eta horiek jasotako mozkinen zenbateko osoa.

Espainian egoiliar diren sozietate kudeatzaileek edo inbertsio sozietateek lehenago aipatutako ziurtagiriaren bidez justifikatu ahal izango dute, batetik, hitzarmenean finkatutako ezarpen muga entitate merkaturatzailearen herrialde berean, hitzarmenean emandako zentzuan, egoiliar diren jasotzaileei bakarrik banatutako mozkinen gainean aplikatuz egindako atxikipena edo konturako sarrera, eta, bestetik, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 25. artikuluan ezarritako karga tasa gainerako jasotzaileei banatutako mozkinen gainean aplikatuz egindako atxikipena edo konturako sarrera. Gainera, atzerriko entitate merkaturatzaileak bere herrialdeko agintari fiskalek berari egindako egoitza fiskaleko ziurtagiri bat bidali behar die sozietate kudeatzaileei edo inbertsio sozietateei; ziurtagiriak hiru urterako balio izango du, egiten denetik aurrera.

b) Baldin eta atzerriko entitate merkaturatzailea aurreko a) letran jasotakoez besteko herrialde edo lurralde batean egoiliarra bada, ziurtagiri bat egin eta sozietate kudeatzaileari edo inbertsio sozietateari eman behar dio, inbertsio kolektiboko erakunde bakoitzeko edo, hala badagokio, horren partaidetza banatze edo mota bakoitzeko edo akzio serie bakoitzeko, inbertsio kolektiboko erakundeak banatutako mozkinak jasotzen dituenean. Informazio hau jaso behar da ziurtagirian:

a) Cuando la entidad comercializadora extranjera sea residente en un país con el que España haya suscrito un Convenio para evitar la doble imposición con cláusula de intercambio de información en el que se fije un límite de imposición inferior al previsto en el artículo 25 de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, deberá emitir y entregar a la sociedad gestora o a la sociedad de inversión un certificado, por cada institución de inversión colectiva o, en su caso, por cada compartimento o clase de participaciones o serie de acciones de la misma, con ocasión de la percepción de beneficios distribuidos por la institución de inversión colectiva, que contenga:

1. Lugar y fecha en que se emite el certificado.

2. Denominación de la entidad comercializadora y dirección completa en su país de residencia. Asimismo, deberá incluirse el número de identificación fiscal atribuido por la Administración tributaria española a la entidad comercializadora residente en un país con el que España haya suscrito un Convenio para evitar la doble imposición con cláusula de intercambio de información, excepto en el supuesto de que, conforme a lo dispuesto en la letra c) del apartado 3 de la disposición adicional primera del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, aprobado por Real Decreto 1776/2004, de 30 de julio, no esté obligada a presentar las relaciones individualizadas a que se refiere dicho precepto.

3. Identificación y cargo de la persona que suscriba el certificado, que deberá tener poder suficiente para ello.

4. Denominación de la institución de inversión colectiva, Número de Identificación Fiscal atribuido por la Administración tributaria española y domicilio fiscal.

5. En su caso, denominación del compartimento y de la clase de las participaciones o de la serie de las acciones.

6. Código ISIN de las participaciones o acciones de la institución de inversión colectiva o, en su caso, del compartimento o de la clase o serie de las mismas.

7. En su caso, denominación de la entidad gestora, Número de Identificación Fiscal atribuido por la Administración tributaria española y domicilio fiscal.

8. Fecha de distribución de los beneficios.

9. El número de personas o entidades perceptoras residentes, en el sentido del Convenio, del mismo país que la comercializadora y el importe total de los beneficios percibidos.

10. El número del resto de personas o entidades perceptoras y el importe total de los beneficios percibidos.

Las sociedades gestoras o las sociedades de inversión, residentes en España, podrán justificar la retención o el ingreso a cuenta practicado aplicando el límite de imposición fijado en el Convenio sobre los beneficios distribuidos que correspondan, exclusivamente, a las personas o entidades perceptoras residentes, en el sentido del Convenio, en el mismo país que la comercializadora, y la retención o ingreso a cuenta aplicando el tipo de gravamen del artículo 25 de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes sobre los beneficios distribuidos al resto de personas o entidades perceptoras, mediante el certificado antes mencionado. Además, la entidad comercializadora extranjera deberá remitir a las sociedades gestoras o a las sociedades de inversión un certificado de residencia fiscal de la misma expedido por las autoridades fiscales de su país que tendrá una validez de tres años a partir de su fecha de expedición.

b) Cuando la entidad comercializadora extranjera sea residente en un país o territorio diferente a los incluidos en la letra a) anterior, deberá emitir y entregar a la sociedad gestora o a la sociedad de inversión un certificado, por cada institución de inversión colectiva o, en su caso, por cada compartimento o clase de participaciones o serie de acciones de la misma, con ocasión de la percepción de beneficios distribuidos por la institución de inversión colectiva, que contenga:

EK\CV GAO-I-2021-08154

1. Ziurtagiria non eta noiz egin den.

2. Entitate merkaturatzailearen izena, Espainiako Zerga Administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia eta egoitza herrialdean duen helbide osoa.

3. Ziurtagiria sinatzen duen pertsonaren identifikazioa eta kargua; ahalorde nahikoa izan behar du pertsona horrek.

4. Inbertsio kolektiboko erakundearen izena, Espainiako Zerga Administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga helbidea.

5. Hala badagokio, partaidetzen banatze edo motaren izena edo akzioen seriearena.

6. Inbertsio kolektiboko erakundearen partaidetza edo akzioen ISIN kodea edo, hala badagokio, horien banatze edo motarena edo seriearena.

7. Hala badagokio, entitate kudeatzailearen izena, Espainiako Zerga Administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga helbidea.

8. Mozkinak noiz banatu diren.

9. Jasotzaile kopurua, eta horiek jasotako mozkinen zenbateko osoa.

Espainian egoiliar diren sozietate kudeatzaileek edo inbertsio sozietateek lehenago aipatutako ziurtagiriaren bidez justifikatu ahal izango dute Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 25. artikuluan jasotako karga tasa mozkin banatuen gainean aplikatuz egindako atxikipena edo konturako sarrera. Gainera, atzerriko entitate merkaturatzaileak bere herrialdeko agintari fiskalek berari egindako egoitza fiskaleko ziurtagiri bat bidali behar die sozietate kudeatzaileei edo inbertsio sozietateei; ziurtagiriak hiru urterako balio izango du, egiten denetik aurrera.

c) Atzerriko entitate merkaturatzaileak aurreko a) eta b) letretan aipatutako hil natural bereko ziurtagiriak egin eta sozietate kudeatzaileari edo inbertsio sozietateari eman ahal izango dizkie, ondorengo hil naturalaren lehen 10 egunetan. Kasu horietan, atzerriko entitate merkaturatzailea ziurtagiri bakar bat egin dezake, non hilabetekoa dela adieraziko den eta letra horietan aipatutako datuak (hil naturalekoak) jaso eta mozkinen banatze dataren arabera antolatu behar diren.

Aurreko paragrafoan jasotako bidaltze moduak ez du eragotziko entitate merkaturatzaileak sozietate kudeatzaileari edo inbertsio sozietateari, inbertsio kolektiboko erakundeak banatutako mozkinak jasotzean, atxikipena edo konturako sarrera behar bezala egiteko beharrezkoa den informazioa jakinarazteko duen obligazioa.

d) Espainian egoiliarra den entitate kudeatzailea edo, hala badagokio, inbertsio sozietatea behartuta dago zenbaki honetan jasotako dokumentazioa gordetzera, betiere Zerga Administrazioaren eskura izanda, 2005eko martxoaren 8ko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 65. artikuluan aipatutako preskripzio epean.

e) Entitate kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak, 296 ereduko atxikipenak laburtzeko urteko aitorpena betetze aldera, jasotzaileen bi atal edo erregistrotan taldekatuko du, mozkin jasotze bakoitzeko, entitate merkaturatzaileak egindako ziurtagirian adierazitako jasotzaile kolektiboari informazioa: batean, Zergadun ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 25. artikuluan jasotako karga tasatik beherako atxikipen tasa bat jasan duten zergadunak; eta bestean, aldiz, gainerako zergadunak. Entitate kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak atzerriko entitate merkaturatzailea jaso behar du, bi kasuetan, jasotzaile gisa. Ereduan jasotzaileei buruzko adierazitako gainerako informazioa atzerriko entitate merkaturatzaileari buruzkoa dela ulertu behar da.

1. Lugar y fecha en que se emite el certificado.

2. Denominación de la entidad comercializadora, Número de Identificación Fiscal atribuido por la Administración tributaria española y dirección completa en su país de residencia.

3. Identificación y cargo de la persona que suscriba el certificado, que deberá tener poder suficiente para ello.

4. Denominación de la institución de inversión colectiva, Número de Identificación Fiscal atribuido por la Administración tributaria española y domicilio fiscal.

5. En su caso, denominación del compartimento y de la clase de las participaciones o serie de las acciones.

6. Código ISIN de las participaciones o acciones de la institución de inversión colectiva o, en su caso, del compartimento o de la clase o serie de las mismas.

7. En su caso, denominación de la entidad gestora, Número de Identificación Fiscal atribuido por la Administración tributaria española y domicilio fiscal.

8. Fecha de distribución de los beneficios.

9. El número de personas o entidades perceptoras y el importe total de los beneficios percibidos.

Las sociedades gestoras o las sociedades de inversión, residentes en España, podrán justificar la retención o el ingreso a cuenta practicado aplicando el tipo de gravamen del artículo 25 de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes sobre los beneficios distribuidos, mediante el certificado antes mencionado. Además, la entidad comercializadora extranjera deberá remitir a las sociedades gestoras o a las sociedades de inversión un certificado de residencia fiscal de la misma expedido por las autoridades fiscales de su país que tendrá una validez de tres años a partir de su fecha de expedición.

c) La entidad comercializadora extranjera podrá emitir y entregar a la sociedad gestora o a la sociedad de inversión los certificados a los que se refieren las letras a) y b) anteriores relativos a un mismo mes natural en los 10 días primeros del mes natural siguiente. En estos casos, la entidad comercializadora extranjera podrá emitir un único certificado, haciendo constar su carácter mensual, que recoja los datos a que se refieren dichas letras, correspondientes al mes natural, ordenados por la fecha de distribución de beneficios.

La forma de remisión recogida en el párrafo anterior se entenderá sin perjuicio de la obligación de la entidad comercializadora de comunicar a la sociedad gestora o a la sociedad de inversión, con ocasión de la percepción de beneficios distribuidos por la institución de inversión colectiva, la información necesaria para la correcta práctica de la retención o ingreso a cuenta.

d) La entidad gestora residente en España o, en su caso, la sociedad de inversión estará obligada a conservar la documentación prevista en este número a disposición de la Administración tributaria, durante el plazo de prescripción a que se refiere el artículo 65 de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

e) La entidad gestora o la sociedad de inversión, a los efectos de la cumplimentación de la declaración resumen anual de retenciones, modelo 296, agrupará, por cada percepción de beneficios, la información referida al colectivo de personas o entidades perceptoras integradas en el certificado emitido por la comercializadora, en su caso, en dos apartados o registros de persona o entidad perceptora, uno comprensivo de las y los contribuyentes que han soportado un tipo de retención inferior al tipo de gravamen del artículo 25 de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes y otro referido al resto de contribuyentes. La entidad gestora o la sociedad de inversión consignará en ambos casos como persona o entidad perceptora a la entidad comercializadora extranjera. El resto de información del modelo relativa a las perceptoras se entenderá referida a la comercializadora extranjera.

EK\CV GAO-I-2021-08154

f) Artikulu honetan jasotako akreditazio prozedura bereziak ez du eragotziko Zerga Administrazioak edozein zergaduni hitzarmena aplikatzeko eskubidea justifikatu dezala eskatzeko duen ahalmena.

g) Artikulu honen aurreko letretan jasotakoa jasota ere, kontuan hartu gabe entitate merkaturatzaileak non duen egoitza, eta jasotzailearen egoitzarekin bat ez etorri arren, atxikitzera edo kontura sartzera behartutakoak foru agindu honen 5. artikuluaren bitik laura bitarteko apartatuetan jasotakoa aplikatu ahal izango du, atxikipenak edo konturako sarrerak berari aplikazioz-koa zaion ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen batean barruko karga tasatik behera finkatutako ezarpen tasa batean egin izana justifikatzeko. Kasu horretan, baldintza hauek bete behar dira:

1. Atxikitzera edo kontura sartzera behartutakoak jasotzaileen zerga egoitzako ziurtagiriak eduki eta gorde behar ditu, 5. artikuluaren bitik laura bitarteko apartatuetan jasotakoaren arabera.

2. Artikulu honen a) eta b) letretan jasotako ziurtagirietan, jasotzaile horiei buruzko informazioa honela bereizi behar da:

1.a.— Pertsona mota: fisikoa (F) edo juridikoa (J).

2.a.— Deiturak eta izena, edo izendapena.

3.a.— Espainiako identifikazio fiskaleko zenbakia, zergadunak hori badu.

4.a.— Zergadunari egoitza herrialde edo lurraldean emandako identifikazio fiskaleko zenbakia, hori badu.

5.a.— Egoitza herrialde edo lurraldea, zeina bat etorriko baita abenduaren 14ko 567/2016 Foru Aginduak, «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Ez-egoiliarren kontuen aitorpen informatiboa» izeneko 291 eredua onartu, eta haren aurkezpen moduak eta herrialde eta lurraldeen kodeen zerrenda ezartzen dituenak, III. eranskinean jasotako herrialde eta lurralde gakoekin.

6.a.— Jasotako mozkinen zenbatekoa.

3. Atxikipenen urteko laburpena aitortzeko 296 eredua betetzean, entitate kudeatzaileak edo inbertsio entitateak ez du taldekatu behar jasotzaile horiei buruzko informazioa, baizik eta jasotzaileen izenean dauden banakako eremu edo erregistroetan adierazi behar dira haiek.

9. artikulua. 296 ereduaren bidez informazioa ematean aplikatu beharreko erregela bereziak.

Informazioa ematera behartutakoek banaka adierazi beharko dituzte, 296 ereduan informazioa materakoan soil-soilik, ondare elementu, ondasun edo eskubide beraren kotitular bakoitzaren datu ekonomikoak, baldin eta aipatu ereduan aitortu beharreko errentei lotutako ondare elementu, ondasun edo eskubide berak titular bat baino gehiago baditu. Ondare elementu, ondasun edo eskubide beraren kotitular bakoitzak duen partaidetzaren arabera banakatu behar dira datu ekonomikoak, betiere informazioa ematera behartutakoak partaidetza horren froga nabarmena badu. Froga nabarmenik egon ezean, partaidetzaren proportzioa zati berdinetan egotziko zaio titular bakoitzari, aipatutako informazio ondorioetarako.

Xedapen gehigarri bakarra. Ez-egoiliarren kontuei buruzko informazioa.

Foru agindu honetan 296 ereduko urteko aitorpena aurkezteko betebeharra ezarri arren, Espainiako Bankua edo atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araudian aipatutako entitate erregistratuak behartuta daude Zerga Administrazioari kasuan kasu ez-egoiliarren kontuei buruz zehazten den informazioa ematera.

f) El procedimiento especial de acreditación regulado en este artículo se entenderá sin perjuicio de la facultad de la Administración tributaria de exigir, en su caso, a cualquier contribuyente la justificación de su derecho a la aplicación del Convenio.

g) No obstante lo previsto en las letras anteriores de este artículo, con independencia del país o territorio de residencia de la entidad comercializadora, y aunque no coincida con el de residencia de la persona o entidad perceptora, la persona o entidad obligada a retener o a ingresar a cuenta podrá aplicar lo dispuesto en los apartados dos a cuatro del artículo 5 de esta Orden Foral para justificar la práctica de retenciones o ingresos a cuenta a un tipo de imposición fijado en un Convenio para evitar la doble imposición que sea aplicable, inferior al tipo de gravamen interno. En este caso, deberán cumplirse los siguientes requisitos:

1. La persona o entidad obligada a retener o a ingresar a cuenta deberá disponer de los correspondientes certificados de residencia fiscal de las persona o entidades perceptoras y conservarlos, en los términos de los apartados uno a cuatro de artículo 5.

2. En los certificados a que se refieren las letras a) y b) de este artículo, se desagregará la información relativa a estas perceptoras, indicando:

1.º— Tipo de persona: física (F) o entidad (J).

2.º— Apellidos y nombre, o denominación.

3.º— Número de identificación fiscal español, si el o la contribuyente dispone de él.

4.º— Número de identificación fiscal asignado al o a la contribuyente en el territorio o país de residencia, si dispone de él.

5.º— País o territorio de residencia, ajustado a las claves de países y territorios recogidas en el anexo III de la Orden Foral 567/2016, de 14 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 291 «Impuesto sobre la Renta de no Residentes. No residentes sin establecimiento permanente. Declaración informativa de cuentas de no residentes», y sus formas de presentación, así como la relación de códigos de países y territorios.

6.º— Importe de los beneficios percibidos.

3. A los efectos de la cumplimentación de la declaración resumen anual de retenciones, modelo 296, la entidad gestora o la sociedad de inversión no agrupará la información referida a estas perceptoras, sino que figurarán en campos o registros individuales a nombre de las personas o entidades perceptoras.

Artículo 9. Reglas especiales aplicables al suministro informativo en el modelo 296.

Exclusivamente a los efectos del suministro informativo en el modelo 296, en aquellos supuestos en que existan varios titulares del mismo elemento patrimonial, bien o derecho del que provengan las rentas objeto de dicho modelo, las personas o entidades obligadas al suministro de la información deberán realizar el referido suministro informativo individualizando los datos económicos correspondientes a cada una de las cotitulares del mismo elemento patrimonial, bien o derecho. Esta individualización se realizará de acuerdo con la proporción de participación de cada una de las cotitulares del mismo elemento patrimonial, bien o derecho que conste de manera fehaciente a la persona o entidad obligada al suministro de la información. En defecto de constancia fehaciente, la proporción de participación se deberá atribuir a cada una de las cotitulares, a los referidos efectos informativos, por partes iguales.

Disposición adicional única. Información relativa a cuentas de no residentes.

No obstante la excepción a la obligación de presentar la declaración anual, modelo 296, establecida en el artículo 3 de la presente orden foral, el Banco de España o las entidades registradas a que se refiere la normativa de transacciones económicas con el exterior, vendrán obligadas a proporcionar a la Administración tributaria la información relativa a cuentas de no residentes que se determine.

EK\CV GAO-I-2021-08154

Xedapen indargabetzailea.

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, batetik, indargabetuta gelditzen dira foru agindu honen aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta, bereziki, Ezegoiliarren errentaren gaineko zergan establezimendu iraunkorrik gabe lortutako hainbat errentaren gainean egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aitortzeko 296 eredua onartzen duen abenduaren 23ko 1055/2009 Foru Aginduan 296 ereduari buruz ezarritako erregulazioa, bestetik, gaitu egiten da 210, 211, 212, 213, 215 eta 216 ereduen formulario bidezko aurkezpen telematikoa eta, azkenik, indarrik gabe uzten dira 214 ereduari buruzko xedapenak.

Azken xedapena. Indarrean jartzea eta aplikatzea.

